

AURKEZPENA

*Irakana ez da gure, jitekoa ez da gure;
ez da gure presentean dena baizik.*

Zapata gorria azalean, kutxa ezinezkoan gorde ezinik, emozioak dira GO-GOaren ale honetan protagonista. Emozio edo sentimendu batzuk —lotsa, errua, haserrea, irrika, desioa— psikologiaren ikuspuntutik aztertuta; horixe da GOGOA VI-2ren gai nagusia. Baina badira beste batzuk ere.

Hasteko, itzulpenen atalean, Hardy matematikariaren *Apologiaren* atal batzuk euskaratu dizkigu Enetz Ezenarrok. Matematikan emozioek eta sentimenduek tokirik ez dutela pentsa genezake, eta, zentzu hertsian, hala da, seguru asko. Matematikariaren jardunean, beren buru eta gogoetan, eta baita matematikariak ez direnenetan ere, izan behar dute tokiren bat. Nekez uler daiteke, bestela, defentsaren edo apologiaren premia sumatzea Hardy bezalako matematikari handi batek.

Emozio eta sentimenduen azterketak toki nagusia du psikoanalisian, jakina. Sigmund Freud handiaren heriotzatik 150 urte bete diren honetan, psikoanalisiak berak bizi duen egoerari erreparatu dio Mikel Plazaolak *Zabal-zehatz begiratz* jaso dugun lan honetan: «Freuden ondorioak: psikoanalisi eta egungo zientziaren diskurtsoa».

Krisian sumatzen du gaur egungo soziologia Eguzki Urteagak, eta horren arrazoiak argitzen dizkigu, artikuluen atalean, «Soziologia garaikidearen krisia» titulua daraman lanean. Bigarreanean, berriz, lotsaren eta erruaren bizipena eta adierazpena aztertzen dute Aitziber Pascual, Susana Conejero eta Itziar Etxebarriak, euskara eta gaztelania alderatuz. «Erru sentimenduaren eta lotsaren arteko diferentziak berdinak al dira euskaraz eta gaztelaniaz?» da erantzun nahi duten galdera. Gai horri lotua da Pello Huizik azertu duen liburua ere. *Bilingual minds. Emotional experience, Expression and Representation* liburua hainbat emozio eta hainbat hizkuntza jorratzen dituzten artikuluen bilduma da. Filosofoiak AEBetan izan duen historiari buruzkoa da Jesus Mari Larrabalek ekarri dugun *A History of Philosophy in America. 1700-2000* Bruce Kuklick historialariaren liburua. Sentimenduek eta emozioek ere izango zuten hor beren tokia.

Ohi bezala, liburu berriak labur aurkeztu eta kongresu, jardunaldi eta ikastaro interesgarriak iragartzen ditugu, eta azken bi bolumenetako aurkibideak eman. Azken bi urteotan txostengile lanak egin dituztenei ere geure eskerrik zintzoena adierazten diegu. Emozioak harrapatzen gaitu GOGOren ale bakoitza osatzen dugunean, azalean zapata gorriak agertu ala ez.

Zuzendariak

Donostian, 2006ko urriaren 25ean